

Triatloi Txikia ospatuko da larunbat honetan Zarautzen

Nik Tri Triatloi Elkarteak antolatuta, larunbat honetan eskualdeko 220 umeek baino gehiagok hartuko dute parte Aritzatalde kiroldegi inguruan ospatuko den Triatloi Txikian. Ekintza honen helburua gazteak triatloi mundua ezagutu eta bertan barneratzea da. Halaber, ekimen hau Eskola Kirola egutegiaren baitan txertatu da.

Proba Aritzatalde kiroldegiko igerilekuan hasiko da, baina kiroldegiko atean elkartuko dira gaxteak taldekatzeko eta orden zehatz batean joateko. Adinaren arabera hitzordu desberdina izango dute gaztetxoek. Hau izango da probaren irteera ordutegia:

- 6. Maila: 10:00
- 5. Maila: 10:30
- 4. Maila: 11:00
- 3. Maila: 11:30

*Hala eta guztiz ere, 15 minutu lehenago elkartuko gara.

Distantzia desberdinak

5. eta 6. mailako ikasleek igerian 2 luze egingo dituzte. Ondoren, bizikletan Aritzatalde inguruari buelta bat emango diote eta proba korrika buelta luzea eginez bukatuko dute.

3. eta 4. mailako ikasleek aldiz, igerian luze bat egingo dute, bizikletan buelta bat emango diote Aritzatalde inguruari eta triatloia korrika buelta motza eginez bukatuko dute.

30 boluntario

Triatloi proban guztia aurreikusitakoaren arabera joan dadin, egunean bertan, Nik Tri Triatloi elkarteko 30 boluntario egongo dira lanean. Halaber, proba hau garatzea ezinezkoa izango litzateke elkarteko babesleen laguntzarik gabe: Kotai group, Lukas Ardotegia eta Automóviles Zarautz.

Eraman beharreko materiala:

- Igeriketako txanoa
- Igeriketako bainujantzia
- Igeriketako betaurrekoak
- Bizikleta
- Bizikletarako kaskoa
- Bizikleta ibiltzeko eta korrika egiteko arropa egokia
- Bizikletan ibiltzeko eta korrika egiteko oinetako egokiak

